

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Dionisio Amundarain Alegria*

*Ibarra,  
Gipuzkoa  
(1922)*

Aurkibidea



## Biografia



Ibarrako Bizkardo baserrian jaioa da Dionisio. Sei senidetan laugarrena, betidanik izan du baratzerako zaletasuna. Bera gaztea zela, etxean baratzetik bizi ziren, neurri batean. Izan ere, landarea saltzen zuten. Soldaduskan izan zenean ere, buruzagiek baratzezaina behar zutela eta, bera aritu zen lan horietan, hasiera batean kanpotik landarea erosi behar ez izateko, eta ondorenean baita landarea saldu eta diru pixka bat ateratzeko ere. Gerora, esnea biltzen eta banatzen aritu zen. Tolosaldean esnea bildu, eta Donostian banatzen zuen, Gros auzoan; bizikletaz lehendabizi, eta kamioiez gero. Erretiroa hartu zuenetik, baratzean aritu izan da lanean. Horrek ematen omen dio osasuna.

## Zintak

### IBA-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-07-30
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

## Pasarteak

### 1. Eskolara Errepublikara garaian

- **Erref:** IBA-002/002
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:00:59. **Bukatu:** 00:01:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

#### Laburpena:

Errepublika garaian bederatzi urte zituen eta baserrian ez zen ezer jakiten. Eskolara orain Udaletxea dagoen eraikuntzara joaten zen. Jolastu egiten zuten.

## 2. Ibarra asko aldatu da

- **Erref:** IBA-002/003
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

### Laburpena:

Bizkardo baserríkoak nekazariak ziren. Ibarra landare asko saltzen ziren garai hartan. Lehen baratze handiak ziren lekuan orain etxeak egin dituzte. Ibarra mila biztanle zituen. Orain lau mila baino gehiago.

## 3. Azokara landareak saltzera

- **Erref:** IBA-002/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

### Laburpena:

Garai batean Ibarra piperrek ez zuten famarik. FERIA larunbatean izaten zen Tolosan eta Ordizian asteazkenean eta ostegunean Hernanin. Azoka horietan landarea saltzen zuten: aza, azalorea, letxuga eta abar. Landareak ehunaka saltzen ziren eta ehuneko erdiak eta ehunekoak eramaten zituzten astoan, lastoz loturik.

## 4. Tabako landareak jarri zituzten gerra garaian

- **Erref:** IBA-002/006
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:09:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserríko lanak » Lurra lantzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

Prezioak ez ditu gogoan baino asko saltzen zutela bai. Gerra etorri zenean tabakoa jarri zuten hiru urtez eta Irungo fabrikara bidaltzen zuten. Handik aurrera landareak bakarrik. Tabako landarea udaberrian egiten zuten, maiatza aldera aldatu eta urrian moztu. Aurretik lorea moztzen zioten eta horregatik hostoak metro bat luzatzen zitzaizkien. Eguzkitan moztu ondoren hostoak zimeldu egiten ziren eta horregatik ez ziren hausten. Bukatzeko, zintzilika jartzen zituzten plaza ondoko etxe batean. Hostoek kolorea hartu zezaten ilunpeetan egon behar zuten. Hiru hilabete lehortzen utzi ondoren Irunera eramaten zituzten. Hostoek puruen kolorea hartzen zuten.

## 5. Gau-eskolan etxean egindako puruak erretzen

- **Erref:** IBA-002/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

### Laburpena:

<p>Ibarren Tolosako maisu batekin gau-eskola egiten zuten, erabat euskaraz. Hostoekin egindako puruak eramaten zituen eta danak erretzen ibiltzen ziren.</p>

## 6. Puruak nola egiten zituen

- **Erref:** IBA-002/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

### Laburpena:

Puruak nola egiten zituen azaltzen du: hosto finenak hartu eta bueltaka-bueltaka bildu. Barruan txikitutako hostoak jartzen zituzten. Ez zen lotu beharrik, itsatsita gelditzen da. Gero lehortzen utzi behar da.

## 7. Tabako-hostoak Irunera bidaltzen zituzten

- **Erref:** IBA-002/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:13:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

### Laburpena:

Irunera tabako-hosto handiak bidaltzen zituzten. Katgoria desberdinetako hostoak izaten ziren eta desberdin ordaintzen zizkien. Irunera trenez bidaltzen zituztela uste du. Hori gerra ondoren izan zen. Inguruko beste batzuk ere tabakoa jarri zuten garai hartan.

## 8. Gerra hasieran kanoiak Tolosarako bidean

- **Erref:** IBA-002/010
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:13:29. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

**Laburpena:**

Gerra hasi zenean, Berastegitik sartu ziren tropak Ibarren. Tolosara abiatu ziren Checa komandantearen atzetik, eta Tolosako batzokitik nazionalistek bota egin zuten. Orduan teniente koronelak bonbardatzeko ordena eman zuen. Kanoiak mandoarekin ekartzen zituzten. Berrobiko bidean taberna bat zen eta herriko mutilak han ondoan jarri ziren dena ikusteko asmoz. Handik hogeit hamar egunetara, Tolosa hartu zuten.

**9. Falangistak Bizkardo baserrian lo egiten**

- **Erref:** IBA-002/011
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

**Laburpena:**

Falangistek Bizkardo baserrian lo egiten zuten. Atzera eta aurrera ibiltzen ziren beraien fusilekin. Hura gogorra zela pentsatzen du.

**10. Belabieta mendira belarra moztera**

- **Erref:** IBA-002/012
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

Bi anaia zaharrenak gerrara eraman zituzten. Dionisio baserrian gelditu zen aita eta amarekin. Izazkun menditik barrera Belabieta mendira joaten ziren belarra ebakitzera. Segan ibiltzen ziren. Orain ez da inor joaten hura garbitzera. Oinez joaten ziren, sega eta mailua hartuta. Janaria eta ura ere eramaten zituzten. Etxekoak joaten ziren eta gurdi onekin belarra kargatuta etxera itzultzen ziren. Egunero egiten zuten joan-etorria.

**11. Meta nola egiten zuten**

- **Erref:** IBA-002/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena:**

Lau behi, bi txekor, bi idi eta zaldi bat zituzten etxean. Horiei denek janaria emateko adina belar bildu behar izaten zuten. Belarrarekin meta egiten zuten eta meta egiteko modua azaltzen du.

## 12. Falangistei beldurra

- **Erref:** IBA-002/015
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

### Laburpena:

<p>Gerra garaian, militarrek nola zebiltzan ikusi zuten. Gaiztoenak falangistak zirela iruditzen zaio. <em>Cara al Sol</em> abesten zuten, eta eskua altxa behar izaten zen. Falangistek beldurra ematen zuten. Jendea hiltzen zutela esaten zelako zuten beldurra. Frontean ere asko hiltzen ziren.</p>

## 13. Osabak balkoitik salto egin zuen falangistengandik ihesi

- **Erref:** IBA-002/016
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:28:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

### Laburpena:

Falangistei janaria eman behar izaten zitzairen. Denbora gutxi egon ziren, eta joan zirenean bakea eman zuten. Jendea beldurrez ibiltzen zen. Aitak mendira alde egin zuen falangistak sartu zirenean. Osabak, Iturburu baserrikoak, balkoitik salto eginda alde egin zuen falangistak bere bila etorri zirenean.

## 14. Ibarran gutxi batzuk zeuden politikan sartuta

- **Erref:** IBA-002/019
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

### Laburpena:

Baserrietako jendeak ez zuen alde egin, baina Tolosako kaleko jendeak bai: alkateak, zinegotziek eta horrelakoak. Ibarran ez zegoen politikarik. Karlistak bazeuden. Errepublikanoak bi edo hiru. Komunistak ez zegoen. Sozialistak bi edo hiru. Gehienak karlistak ziren Ibarran.

## 15. Aita karlista

- **Erref:** IBA-002/021
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

**Laburpena:**

Herrian karlistek agintzen zuten. Aita ere karlista zuen. Orduan esaten zutenez, familia onenak karlistak ziren. Tropek alde egin zutenean, aita etxera itzuli zen. Beste norbaiten salaketaren beldur izaten ziren. Tolosan 12 hil zituzten.

**16. Tolosako emakume batek paketeak frontera eramaten zituen**

- **Erref:** IBA-002/024
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:38:27. **Bukatu:** 00:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan

**Laburpena:**

Anaiak gerran zeuden bitartean, Tolosako emakume batek, 'Kapaña'k, paketeak frontera eramaten zizkien. Bueltatzen zirenean, zorritz beteta etortzen ziren. 'Kapaña' emakume ausarta zen. Paketeetan janaria sartzen zuten.

**17. Gerra Zibila bukatu ondoren, Europako gerrara joateko beldurrez**

- **Erref:** IBA-002/025
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

**Laburpena:**

Anaiak gerratik bizirik itzuli zirenean, pozik jarri ziren. Ondoren, Europako gerra hasi zen eta anaiak ia berriro joan behar izan zuten. Franco gerran sartu ez izanaz pozitu ziren.

**18. Anaiak Europako gerran egon ziren**

- **Erref:** IBA-002/027
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:43:34. **Bukatu:** 00:44:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

**Laburpena:**

Europako gerran urte pare bat edo hiru pasa zituzten Dionisioren anaiek. Itzuli zirenean pozik jarri ziren. Gutunak bidaltzen zizkien.

**19. Bizi itxaropena asko luzatu da**

- **Erref:** IBA-002/029
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Gerrarik ez da izan ondoren eta ez da izango ere. Hobe ez izatea. Gerra denboran 88 urte arte biziko zela esan baliote ez zukeen sinetsiko. Gara hartan askoz gazteago hiltzen ziren, orain berriz asko 100 urte arte bizi dira.

**20. Soldadu Donostian eta Hondarribian**

- **Erref:** IBA-002/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:46:54. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

Soldadu hiru urte pasa zituen. Oraingo gazteek ez dakite hori zer zen. Lehenengo Donostiara joan zen. Handik Hondarribira, Guadalupeko kartzelara, guardiak egitera eraman zuten. Han zeudela tenienteak dei egin zion eta Donostiara joan behar zuela esan zion, Miramonera, militarrek bertan zuten etxe batera.

**21. Militarren terrenoetan nekazari lanetan**

- **Erref:** IBA-002/031
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

Orain erresidentzia dagoen lekuan, gerra ondoren militarren terrenoak zeuden. Berastegiko seme batek, Ibarako Montes baserrian morroi bezala ibilitakoa, Dionisioren izena eman omen zion tenienteari baratzerako esku lana behar zutela esan zionean. Oinez joan zen Miramonera eta bertan Benito aurkitu zuen, Berastegiko laguna.

## 22. Militarren terrenoetan landatutakoa azokan saltzen zuten

- **Erref:** IBA-002/032
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:51:47. **Bukatu:** 00:53:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

### Laburpena:

Benito, bere Berastegiko laguna, Hernaniko azokara joaten zen astean behin, landareak eroatera. Landareak militarren terrenotan jartzen zituzten eta simaur asko zeukatenez lurra oso emankorra zen. Horrela Hernaniko landararik behar ez izatera iritsi ziren. Errenteriako azokara joaten ziren igandetan soberan zutena saltzera.

## 23. Negozioak militarren terrenoetako landareekin

- **Erref:** IBA-002/033
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:53:58. **Bukatu:** 00:56:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

### Laburpena:

Errenteriako azokan, bezperan ateratako landarea saltzen zuten eta oso freskoa zenez, ordu batean dena saldu eta bi lagunak gosaltzera joaten ziren. Mandoarekin Miramonera itzultitakoan tenienteak dirua ematen zien egindako lanaren truke. 50 pezeta ematen zizkion bakoitzari, asko garai haietarako. Irabazitako beste dirua tenienteak gordetzen zuen eta horrela denak negozioarekin pozik. Hiru urte pasa zituzten sasoi horretan, lan asko eginez, baina lanak ez du Dionisio beldurtzen.

## 24. Baratzeko lanak bizia ematen du

- **Erref:** IBA-002/034
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:56:07. **Bukatu:** 00:59:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

### Laburpena:

Gaur egun ere lana egiten jarraitzen du. Baratzeak bizia ematen dio Dionisiori. Sasoi onean dago oraindik. Lana bere tamainan ona dela pentsatzen du. Baratzean ekoiztutako produktuak ekologikoak dira eta sano jaten duenez osasun ona dauka.

## 25. Baserritik kanpo lanean

- **Erref:** IBA-002/035
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:59:15. **Bukatu:** 01:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Soldadutzatik etxera itzultitakoan, aitak etxean lanik ez zegoela esan eta lana bilatzeko eskatu zion. Lehengusu batek esnea biltzeko langile bat behar zuen eta 1946ean hasi zen esnea biltzen. 62 urtez aita-sembleak lan horretan jardun dute. Gazteluko esnea biltzen hasi ziren, gero Leaburukoa ere bai. Hogei urtez esne bilketaren ikuskaria ere izan da (esnearen ur kopurua neurtzeko).

## 26. Donostiako Grosen esnea banatzen

- **Erref:** IBA-002/036
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:01:49. **Bukatu:** 01:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

Tolosara jaisten zen mandoarekin eta handik Donostiara joaten zen Groseko etxeetan esnea banatzen. Amezketatik etortzen zen kamioneta batean joaten ziren Donostiara. Saldu aurretik, esnea aztertu egiten zuten. Banaketa bizikletaz egiten zuen.

## 27. Kamioia esnea banatzen ibiltzeko

- **Erref:** IBA-002/038
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:06:32. **Bukatu:** 01:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

### Laburpena:

<p>Esnea kamioi batean banatzen hasi zen. Lan handia zuten.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-07*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com